



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR
BERRIOZARKo UDALA
Euskal Herria 1. 31013 Berriozar

UDAL-ORDENANTZA

**Berriozarko udal-barrutiko eremu publikoan ostalaritzako
terrazak kokatzea arautzen duena**

Hasierako onespeneren testua.

Espedientea: 178 339 T

AURKIBIDEA

Zioen azalpena.....	3
I. kapitulua. Xedapen orokorrak.....	4
1. artikulua.-Xedea.....	4
II. kapitulua. Koka daitezkeen elementuen ezaugarriak.....	5
III. kapitulua. Udal-lizentzia eskuratu beharra.....	9
6. artikulua-Aldez aurretik lizentzia eskuratu beharra.....	9
7. artikulua-Lizentzia alde aurretik eskuratu behar ez izatea.....	9
8. artikulua-Nolako tokitan kokatu ahal izango den instalazioa.....	9
9. artikulua-Lizentzia ukatzeko arrazoiak.....	9
IV. kapitulua. Instalazioak bete beharreko baldintzak.....	10
10. artikulua.-Instalazioak, ibilgailuen zirkulazioa duten kaleetako espaloietan (espalo bakunetan).....	10
11. artikulua-Instalazioak, oinezkoentzako kaleetan (edo zabalera handiko espaloietan, oinezkoentzako tarteen antzekoetan).....	13
12. artikulua-Instalazioak, plazetan.....	13
V. kapitulua. Udal-lizentzia izapidetzea.....	14
13. artikulua-Lizentzia eskatzea.....	14
14. artikulua-Ebazpena.....	15
15. artikulua-Lizentziaren baldintzak.....	15
16. artikulua-Tasak, zergak eta fidantzak.....	16
17. artikulua-Instalazioaren baldintzak.....	17
18. artikulua-Baimena azkentzea.....	17
VI. kapitulua. Epeak eta ordutegiak.....	18
19. artikulua-Denboraldia.....	18
20. artikulua-Ordutegia.....	18
21. artikulua-Instalazioa kentzea.....	19
22. artikulua-Instalazioaren titularraren betebeharrak.....	19
VII. kapitulua. Arau-hausteak eta zehapenak.....	20
23. artikulua-Arau-hausteen sailkapena.....	20
24. artikulua-Zehapenak.....	
25. artikulua-Udal-lizentziarik gabeko instalazioak. Legezketasuna berrezartzea.....	21
26. artikulua-Betearazte subsidiarioa.....	21
Xedapen iragankorrak.....	22
Lehena.....	22
Bigarrena.....	22
Hirugarrena.....	22
Azken xedapena.....	22
Bakarra.....	22

ZIOEN AZALPENA

Berriozarren espaloi zabalak, arkupeak, oinezkoen pasealekuak eta plaza publikoak egin izanak ahalbidetzen dio ostalaritzari bere negozioa eremu publikoan handitzeko eta bezeroei gero eta zerbitzu hobea eta zabalagoa emateko, beladoreak eta terrazak kokatuta eremu publikoetan edo erabilera publikoa duten eremu pribatuetan.

Aukera erreal honen aurrean, 2014an, ostalaritzako titularrei mota horretako instalazioak arautzeko araudi-esparrua eskaintzen zien ordenantza bat onartu zen, jarduera ekonomikoaren garapena eta aisiarako eta atsedenerako eskubidea bateratu nahian.

Aldaketa berri honek aurreko legegintza-aurrekariak jasotzen ditu, besteak beste, 42/2010 Legea, abenduaren 30ekoa, Tabakismoaren aurkako osasun neurriei buruzkoa den eta tabako produktuen salmenta, horniketa, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituen abenduaren 26ko 28/2005 Legea aldatzen duena, eta TMA/851/2021 Agindua, uztailaren 23koa, espazio publiko urbanizatueta iristeko eta horiek erabiltzeko oinarritzko irisgarritasun-baldintzei eta diskriminaziorik ezari buruzko dokumentu teknikoa garatzen duena.

2014ko aldaketan, ostalaritzari kontsulta egiteko prozesu bat gauzatu zen, eta, azkenean alegazio zehatzak ekarri ez bazituen ere, behin-behineko baimen batzuk eman ziren ordenantza hartan espresuki jaso gabeko erabilera batzuetarako, ostalarien ekarpenetan oinarrituta. Positiboki gainditu den probaldi baten ondorioz, orain araudiaren testuan sar daitezke legezketasun-arazorik gabe.

2015eko aldaketan, terraza eta beladoreen eta Berriozarko bidegorrien arteko erlazioa arautu zen, eremu horietan liskarrik egon ez dadin oinezkoen, bizikleten eta terrazetako erabiltzaileen artean.

Ordenantzaren aldaketa honen helburua da bizilagunei zerbitzu zabala eskaintzen ahal dieten establezimendu guztiei terrazak eta beladoreak kokatzeko aukera ematea, baina indarrean dagoen legerian finkatutako irisgarritasun-baldintzak eta bizilagunek atsedean hartzeko daukaten eskubidea batere murriztu gabe. Era berean, hiri-ingurunea edertu eta bateratuko duten terraza, terraza-estalki eta beladore batzuen aldeko apustua da. Berriozarko Udalak aldian-aldian ikuskatuko ditu terraza eta beladore guztiak, ordenantza honen artikuluko guztiak betetzen dituztela egiaztatzeko, bereziki eta zuzenean herritarrei eragiten badiete, hala nola alderdi hauek aintzat hartuta: pertsonen joan-etorriak galaraztea, bereziki mugikortasun-arazoak edo zentzumenezko galerak baldin badituzte, inguruko etxebizitzetara iristen den zarata, okupatzen duten tokiaren garbitasuna edo txukuntasuna, ixteko ordutegia, eta abar.

Ordenantza hau hobeki betetzeko, beharrezkoa izango da lankidetzaren estua egotea Udalaren eta herriko ostalaritza-sektoreko elkartearen artean. Herritarren eta ostalaritzako establezimenduen arteko bizikidetzarako hain garrantzitsua den alderdi horretan eragina izan nahi duen ordenantza batek haien arteko harreman estua eskatzen du eta etengabeko elkarriketa, terrazak, terraza-estalkiak eta beladoreak guztien gozameneko tokia izan daitezen, inori eragotzi gabe.

I. KAPITULUA:

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua-Xedea.

Berriozarko Udalak taberna eta kafetegiei irabazizko jarduera pribatuetarako lurzoru publikoaren eta erabilera publikoko lurzoru pribatuaren erabilera ematea arautzea du xede ordenantza honek, eta hura erabili eta mantentzeko baldintzak ezartzea kontzesio-hartzaileei, baita araubide tekniko eta juridikoa ezartzea ere, terrazak eta beladoreak jartzeko, eta, era berean, haien instalazio osagarriak, hala nola eguzki-babesak, eguzki-oihalak, berogailuak etab.

Jarduerarako lizentzia eta irekitzekoa duten jarduera guztiak, hala nola taberna, kafetegi, jatetxe eta taberna bereziak, erabilera publikorako baitira guztiak, erabilera publikoko enpresa eta lokalen erregistroan alta emanda egonda, ordenantza honetan ezarritako aginduen mende daude, eta nahitaez bete beharko dituzte udal-barrutian.

Janari prestatua saltzeko lokalak, partikularren gastronomia-elkarteak, gazteen lokalak, ziberzentroak, telefonotegiak eta, oro har, erabilera publikorako ez diren lokalak ordenantza honen determinazioetatik kanpo daude.

2. artikulua-Definizioa.

Aurreko artikuluan adierazitakoaren ondorioetarako, jarduera nagusian aritzeko udal-baimena duen ostalaritzako jarduera baten osagarri izanik, mahai eta aulki eta behin-behineko instalazio finko edo mugigarriei esaten zaie terraza eta beladore. Hona kontzeptu horiek:

- a) TERRAZA: behar bezala baimenduta, leku ireki batean –eraikinik gabe– eta jabari publikoan edo erabilera publikoko lurzoru pribatuan kokatuta dagoen espazioari esaten zaio terraza, bertan mahai, aulki, eguzki-babes eta bestelakoak, hala nola landareontziak edo loreontziak, dituztela erabilera publikorako eta ostalaritzako establezimendu baimendu baten mende.
- b) GUNE ESTALIAK: estalkian babesa duten terrazak dira. Irekiak izan daitezke (terrazza-estalkiak) edo itxiak (beladoreak).
- c) ALTZARIAK: altzaritzat jotzen dira mahaiak, aulkiak, berogailuak, landareontziak, eguzkitakoak, eguzki-babesak eta antzekoak, den-denak terrazaren zerbitzurako, babeserako edo mugaketarako.
- d) ALTZARI OSAGARRIAK: altzari osagarritzat jotzen dira altzari osagarriak, lurpean dagoen kableatu elektrikoa, fokuak eta beste batzuk.

3. artikulua-Baimenen iraupena eta zein eremutan eman daitekeen baimena.

Terraza jartzeko baimenaren iraupena urtebetekoa izango da.

Eguzkitakoak eta eguzki-babesak maiatzetik urrirako aldirako besterik ez dira baimenduko; berogailuak, berriz, azarotik apirilera aldirako.

Ez da inoiz denbora mugagaberako baimenik emango. Beladoreen, terraza-estalkien eta terrazaren kasuan baino ez, eremu publikoan galtzadako gehigarriarekin, eta haiek jartzeko inbertsioa kontuan hartuta, baimena 2 urterako izango da hasiera batean, betiere zein

jardueratarako eman den, hartan jarraitzen bada. Baimenaren hasierako epe hori igarotakoan, urtez urte luzatuko da.

Beladoreak jarri ahal izango diren lekuak hauek izango dira:

- Iturkoa kalea.
- Foruen pasealekua.
- Nafarroako Emaileen plaza.
- Konstituzio plaza.
- Zenbait espaloj, aurrerago garatuko diren baldintzetan.

Udal-organo eskudunak beste espazio batzuk aukeratu ahal izango ditu beladoreak kokatzeko, bai hiriko alde berrietan, bai gaur egungo beste alderdi batzuetan, baldin eta egokia iruditzen bazaio eta ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Baimenari onura ateratzen zaion bitartean, esleitutako lurzorua jardueraren edo lokalaren zati gisa hartuko da eta, zein jarduerari lotuta dagoen, haren araubide juridikoaren eta erantzukizunekoaren mende egongo da.

II. KAPITULUA

KOKA DAITEZKEEN ELEMENTUEN EZAUGARRIAK

4. artikulua-Elementuen zer-nolakoak.

- INSTALATU BEHAR DEN MODULU-MOTA ETA HAREN GUTXIENKO NEURRIAK:** mahai batek eta lau aulkik osatzen dute terrazaren modulu-tipoa. Modulu horren azalera 4 metro koadrokoa da (2 x 2 metro).
- AULKIAK ETA MAHAIK:** mahaiak eta aulkia aparte joango dira, eta, oro har, moduluka izango dira, hau da, mahai batek eta lau aulkik modulu bat osatuko dute. Salbuespenez, baimendu ahal izango dira banku finakoak dituzten mahaiak, baldin eta errespetatzen badira legeak eta ordenantza honek finkatuta dituzten pasabide libreak, eta betiere egunaren 24 orduetan eta baimenak iraun bitartean ez bada gatazkarik sortzen inguruko bizilagunekin, sarbideengatik, zaratarengatik edo erabilera indiskriminatu edo berezi gabearengatik.
- EGUZKI-BABESAK EDO EGUZKITAKOAK:** ehunezko edo plastikozko elementu tolesgarriak dira, bermatzeko euskarri bakarrekoak, mahai eta aulkien gainean daudenak erabiltzaileak eguzkitik babesteko. Erabilitako materialek sutearen aurrean EKT-DB-SS kodeak markatutako jokaera bete beharko dute.
- LANDAREONTZIAK ETA LOREONTZIAK:** terrazen edo terraza-estalkien kasuan soilik eman daiteke baimena loreontzi edo landareontzi lerro bat jartzeko terrazaren okupazioaren perimetroan, terrazetako erabiltzaileak babestu edo bereizteko igarotzeko tokietatik. Baimenduko den okupazioaren zabalera 0,50 metrokoa izango da gehienez, eta loreontziaren altuera 0,40 metrokoa gehienez. Elementu horiek okupatzen duten azalera kontuan hartuko da tasak kalkulatzeko eta eremuen okupazioaren mugak jartzerakoan, eta baimen eskaeran bertan azalduta eta definituta egongo da.
- HAIZE-BABESAK:** landaredunak ez diren elementuak dira, superfizialak eta zutikakoak, gehienez ere 1,70 metroko altuerakoak espaloitik neurtuta, terrazaren hainbat leku bistatik ezkutatzeko edo haizetik babesteko. Ezin izango dira jarri beladoretan edo terraza-estalkietan, hau da, terraza irekietan baino ezin izango dira jarri, une orotan oinezkoen, erabiltzaileen eta ondasunen egonkortasuna eta segurtasuna zainduz eta bermatuz.

Elementu horiek okupatzen duten azalera kontuan hartuko da tasak kalkulatzeko eta eremuen okupazioaren mugak jartzerakoan, eta baimen eskaeran bertan azalduta eta definituta egongo da bai hartuko den azalera eta bai haize-babesaren modeloa ere.

F. GUNE ESTALIAK: iraunkorrak izango dira eta izan ahal izango dira:

- a) ITXIAK EDO BELADOREAK: eremu hauek horizontalki mugatuta daude, estalki finko edo mugigarri batekin, egitura zoruaren gainean jarrita, eta bere zoladura duena, espaloien sestratik gora.
- b) IREKIAK EDO TERRAZA-ESTALKIAK: mahai eta aulkiak dituzten terrazek kasuan, estalita eta alboetan itxita egon daitezke elementu hauekin, eta horiek iraunkorrak eta altxagarriak izango dira. Terrazek itxitura bukatuak estali gabeko terrazek distantzia-mugak bete beharko ditu, eta barneko eremu libre bat eduki beti, 2,30 metrokoa edo handiagoa puntu guztietan; itxituraren kanpoaldeko zatirik altuenak 1,5 metro izango ditu gutxienez, bertikalean neurtuta balkoiko lauzaren beheko planotik, edo kasuan kasuko eraikinaren lehen solairuko begiratokitik edo fatxadaren lehen solairuko leihoen ertz baxuenetik jardueraren gainean.

Lokalaren fatxada alderako alboaldea beti irekita egongo da. Gainerako alboaldeak irekita edo itxita egon ahal izango dira, edo mugigarriak izan ahal izango dira, erraz eta eremu publikoa hartu gabe.

- G. BEROGAILUAK: indarrean dagoen araudiak homologatutako modeloak baino ez dira baimenduko mota honetako instalazioetarako. Berogailuak kontsumo txikikoak izango dira; betiere, ingurumenaren jasangarritasuna txukun errespetatuz.

PUBLIZITATEA: beladorean kanpoaldean, establezimenduaren izena eta jarduera-mota jarri ahal izango dira. Mahaietan, aulkien bizkarraldean eta altzarrietan, oro har, establezimenduaren izena jartzeaz gain, marka komertzialena ere jarri ahal izango da, modu nabarmenean ez bada eta indarrean dagoen legeriaren arabera. Guztiz debekatuta daude publizitateko terraza eta beladore estandarrik.

5. artikulua-Elementuen eta materialen homogeneotasuna.

Oro har, mahaiak, aulkiak, eguzki-babesak eta jartzen diren gainerako elementuak ahalik eta zarata gutxien ateratzen duen materialekoak izango dira; bestela, egokitu beharko dira, ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko. Mahaien eta aulkien hanka guztiek gomazko takoak eduki beharko dituzte beti jarrita, mugitzean zarata galarazteko, edo minimora murrizten duten elementuak.

Terrazako elementuak (mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak, etab.) ezin izango dira zoladuran tinkatu eta erraz desmuntatzeko modukoak izango dira, ordenantza honetan ageri diren salbuespeneko egoeretan edo terraza-estalkietan izan ezik.

Behar publiko justifikaturen bat edo eraikinaren beharren bat izanez gero (eremua udal-kontuetarako erabiltzea, eremu publikoa edo eraikina konpontzea edo hartan mantentze-lanak egitea, etab.), terrazaren erabiltzaileak desmuntatu egin beharko du, eremu publikotik kanpo gorde eta jarduketa bukatu ondoren berriz muntatu, kostua eta erantzukizuna bere gain hartuta, tasaren murrizketa salbu, astebete baino gehiago irauten badu.

Baimen eta/edo establezimendu baten multzo bateko elementu guztiak kolore, diseinu eta testura bereko materialekoak izango dira. Terrazek diseinuak, materialek edo kromatismoak ez dute inoiz gaizki emango ondoko terrazekin eta hiri-ingurunearekin edo ingurune arkitektonikoarekin, eta kromatismoa, materialak eta diseinua ahalik eta berdinenak izan beharko dituzte. Gainera, istripurik ez sortzeko moduan diseinatu eta kokatuko dira elementu guztiak.

Altzariak (mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak, eguzki-babesak, haize-babesak, beladoreak, eta abar) eta hiri-inguruneak halako harmonia eta estetika izan dezaten, ezaugarri hauek izango dituzte:

- a) **Materialak:** material erresistenteak, seguruak eta mugimenduan zaratarik eragiten ez dutenak erabiliko dira, eta materialak beren artean konbinatu ahal izango dira, hala nola zur tratatua, biniloa, zumea, plastiko estrusionatuak eserleku eta aulki-bizkarretan, eta abar. Mahai eta aulkiek bat etorri beharko dute beren artean.
- b) **Koloreak:** kokatzen diren altzarietan kolore neutroak erabiliko dira (zuriak, kremak, metalizatuak). Ezin izango da kolore deigarri eta/edo biziegarri erabili.

Nolanahi ere, haize-babesen, landareontzien eta terraza-estalkien kasuan, ikusmen arazoak dituztenek erraz antzeman ditzaten, inguruko zoladuraren kolorearekiko erabat bestelako kolorearekin margotutako zerrenda bat eduki beharko dute.

- c) **Eguzkitakoak/eguzki-babesak/eguzki-oihalak:** ehunezko edo plastikozko material lisoa erabiliko da, eta EKT-DB-SS kodean sutearen aurrean eraikuntza-elementuen eta apaingarrien jokaerarako determinazioak bete beharko dituzte. Euskarria arina eta desmuntagarria izango da. Mahai bakoitzerako banakakoak ezin izango dira lurrean finkatu. Mahai bat baino gehiago estaltzen duten eguzkitakoen eta eguzki-babesen kasuan, berariazko baimena beharko da eta hori hasierako eskaeran jarriko da, edo berariazko baimen batean jasoko dira, jada badagoen terraza bati gehitu nahi bazaizkio. Elementu horien oinplanoko proiektzioak ez ditu terraza baimenduaren mugak gaindituko. Osagai guztiek 2,30 metroko altuera utziko dute libre, gutxienez, eta terrazan baimenduta ez dagoen kaleko edo espaloiko tokirik ezin izango dute hartu.

Eguzki-babesa eguzki-oihala bada, eta lokalaren fatxadan jarrita badaude, Eraikuntzaren Ordenantza Orokorren 33. artikuluko baldintzak errespetatu beharko dituzte, hau da, 1,5 metroko hegalkina gehienez eta 2,30 metroko altuera librea gutxienez. Eguzki-oihalak terrazaren eremua estal dezakeenean, baimena emango da hegalkina mahaien eremua estali arte luzatzeko, puntu guztietan gutxieneko altuera librea, 2,30 metrokoa, errespetatuz, terraza muntatuta dagoen bitartean. Instalazioa kentzen den unean eta/edo hori erabiltzeko ordutegitik kanpo, Eraikuntzaren Ordenantza Orokorren hegalkinerako ezarritako mugak bete arte atzeratu beharko dira eguzki-oihalak.

Terraza estalien kasuan, fatxadako eguzki-oihalak ez du inoiz estaliko lokalaren eta terrazaren arteko tartea, eta erabat debekatuta egongo da "tunel efektua". Kasu horretan, eguzkitakoak eta eguzki-babesak ere debekatuta egongo dira.

- d) **Gune estaliak:** diseinu berezi irekia edo gardena izango dute, bistetarako trabarik gabea, batez ere; ez dira oztopo izango gainerako ingurua ikusteko eta ez dute edukiontzi trinko baten itxurarik izango. Egiturazko elementuak zurez, aluminioz edo metalez fabrikatuta egongo dira, eta erraz desmuntatzekoak izango dira. Gune estalien itxitura bukatuak estali gabeko guneen distantzia-mugak bete beharko ditu, eta, gainera, barneko eremu libre bat eduki beti, 2,30 metroko altuerakoa edo handiagoa. Gune estaliaren sabaiaren kanpoaldeko akabera, zatirik altuenean, ezin egongo da 1,5 metro baino gutxiagora bertikalean fatxadako lehen solairuko balkoien edo begiratokien lauzaren beheko planotik (halakorik badago) eta 1,5 metro baino gutxiagora fatxadako leiho baxuenaren ertzaren planotik jardueraren gainean.

Ikusmen-arazoak dituztenek erraz antzeman ditzaten, gutxienez 30 cm-ko zerrenda bat izango dute, lurzoruan eta gune estaliaren kanpoaldetik, zoladuraren kolorearekiko erabat bestelako kolorea izango duena. Alboko itxiturek, tolesgarriak badira, bilduta daudenean goiko gunearen barnean egon beharko dute beladoreen kasuan, terraza-estalkiaren gunean eta beti hobeki ikusteko kolore kontrastea izango duen eremuan.

Euri-urak biltzeko eta horiek ertz-erretan edo estolda-zuloetara bideratzeko elementuak eduki beharko dituzte.

EKT-DB SUA eta SS kodearen erabilera-baldintzak bete beharko dituzte, aipamen berezia gineez suteen aurrean eraikuntza-materialen eta apaingarrien jokaerari.

Beladoreak baldin badira, alboetako itxiturak nagusiki material gardenekin egingo dira (% 60 baino gehiago) eta zurrinak izango dira, eta lerragarriak edo tolesgarriak ere izan daitezke. Terraza-estalkiek eremuaren mugaketarako elementu baxuak izan ditzakete, lurretik 70 cm-koak, gehienez ere. Beladorearen edozein puntutan, barneko gutxieneko garaiera librea 2,40 metrokoa izango da eta beti bete beharko dituzte hainbat baldintza, hala nola suteen gaineko legeriak zehazten dituen ebakuaziokoak, irisgarritasunekoak eta EKT SUAkoak, baita aireztapenari eta airearen kalitateari dagozkienak ere, itxiak direnean.

Beladoreei eusteko plataforma lurretik 5-10 zentimetrotara egongo da. Zoladurari lotu ahal izateko, Udalak baimena eman beharko du eta, betiere lur azpian garajerik edo sotorik ez dagoenean eta bermatzen bada finkatze-elementuek ez dutela irazgaiztasunean eraginik izango, eta lizentziaren titularrak instalazioa kentzen denean zoladura eta okupatutako lurzorua egoera ezin hobean berreskuratuko direla bermatuta bakarrik. Horretarako, 1.200 euroko abala eratu beharko da.

Beladorearen eredua Udalak onetsi beharko du baimenaren kontzesioaren ekintzan, eta exekuzio-proiektua eduki beharko du eginda (aurrekontua barne hartuko duen exekuzio-proiektua), teknikari eskudun batek prestatua, eta bertan frogatu Eraikingintzaren Kode Teknikoa eta aplikagarria den gainerako arautegia betetzen direla.

Terraza-estalkiak aluminiozkoak, burdinazkoak edo zurezkoak soilik izango dira edo ehunezko materialekin edo plastiko gardenekoekin nahasiak. Lurrean tinkatuta egongo dira, eta beti oinezkoen ibilbideak eta harat-honatak eta bidegorriak galarazten ez badituzte. Estalkiak eta alboak eratzen dituzten sostengu-elementuak eta itxiturak zoruan ongi finkatuta egongo dira, segurtasuna bermatzeko, eta desmuntagarriak izan beharko dute, "mekano gisa". Alboko eta sabaiko itxiturak olanak edo antzekoak erabiliz egingo dira, erraz desmuntatu ahal izateko erabilera beharren edo hiri-eremua edo instalazioak mantendu beharrenden ondorioz.

Terraza-estalkien itxitura bukatuak estali gabeko terrazen distantzia-mugak eta gainerako beharkizunak bete beharko ditu, eta barneko eremu libre bat eduki beti, 2,30 metroko altuerakoa edo handiagoa puntu guztietan.

Lokalaren fatxada alderako alboaldea beti irekita egongo da. Gainerako alboaldeak irekita edo itxita egon daitezke erabili bitartean.

Itxita egongo dira terraza edo jarduera itxita dagoenean.

Terraza-estalkiaren eredua Udalak onetsi beharko du baimenaren kontzesioaren ekintzan, eta exekuzio-proiektua eduki beharko du eginda (aurrekontua barne hartuko duen exekuzio-proiektua), teknikari eskudun batek prestatua, eta bertan frogatu Eraikingintzaren Kode Teknikoa eta aplikagarria den gainerako arautegia betetzen direla.

- e) **Haize-babesak:** aluminiozkoak, burdinazkoak edo zurezkoak soilik izango dira edo ehunezko materialekin edo plastiko gardenekoekin nahasiak. Lurrean tinkatuta egongo dira zerbitzua ematen duen terrazak baimena duen bitartean edo kontrapisu-elementuz hornituta, egonkortasuna bermatzeko, eta beti oinezkoen ibilbideak eta harat-honatak galarazten ez badituzte. Baimenarekin batera joango dira, harekin batera eskatu beharko dira eta jarriko diren ereduen planoak edo argazkiak aurkeztu, eta jarri eta kendu egingo dira terraza muntatzen denean. Beti bermatu beharko da erabilera-esfortzu guztien eta haizearen kontrako erresistentzia, pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko.

Elementu hauek EKT-DB-SUA kodearen erabilera-baldintzak bete beharko dituzte, eta inguruan duten zoladurarekiko kontraste kromatikoa bermatu, ikusmen-urritasuna duten pertsonen detektatu ahal izateko.

Guztiz debekatuta daude publizitateko terraza estandarrak, aurretik deskribatu diren baldintzak edo materialak betetzen ez dituztenak.

III. KAPITULUA

UDAL-LIZENTZIA ESKURATU BEHARRA

6. artikulua-Aldez aurretik lizentzia eskuratu beharra.

Eremu publikoaren gaineko instalazioek erabilera komun bereziaren kategoria juridikoa dute, eta baliatu ahal izateko udal-lizentzia lortu behar da lehenik. Eskuratzeko, ordenantza honetan aurreikusitakoa bete behar da.

Terrazak eta beladoreak jartzeko baimenerako, nahitaezko baldintza izango da, 1. artikuluko lokalen zerrendan sartuta egoteaz gain, eskaera egin duen establezimendua egunean egotea ordainketetan, JEZaren ordainketan alta emanda egotea, jarduerarako eta irekitzeko lizentzia edukitzea, Nafarroako Gobernuaren aisialdi-jardueren erregistroan izena emanda egotea eta erabilera publikokoa izatea, baita inolako zerga-zorrik ez izatea ere Berriozarko Udalean.

7. artikulua-Lizentzia aldez aurretik eskuratu behar ez izatea.

Instalazioek ez dute ordenantza honetan araututako lizentzia eskuratu beharrik izango, kasu hauetako batean badaude:

- a) Udalaren administrazio-kontzesio baten babesean egindako jardueren osagarri direnean, jabari publikoko edo ondareko ondasunetan kokatuta egoteagatik.
- b) Herri-jaiak direla-eta, aldi baterako jarduerak direnean, Udalaren organo eskudunak ezarritako egutegiaren eta moduen barnean.

8. artikulua-Nolako tokitan kokatu ahal izango den instalazioa.

Terrazak eta beladoreak jabari publikoko ondasunak edo erabilera publikoko ondasun pribatuak diren tokietan jartzeko lizentzia eman ahal izango da, terraza edo beladorea jartzen den eremuaren alderako fatxada badute.

Erabilera publikoko zortasuna duen lurzoru pribatua bada, lizentziaz gain, haren jabetzaren baimena eduki beharko terraza kokatzeko, eta baimen hori eskaerarekin batera aurkeztu beharko da.

9. artikulua-Lizentzia ukatzeko arrazoiak.

Udalaren organo eskudunak beladoreak, terrazak eta haien elementu osagarriak ez baimentzeko aukera izango du, baldin eta interes publikoak, irisgarritasunak, trazadurak, kokalekuak, bideko segurtasunak edo bestelako inguruabarrek hala eskatzen badute, eta bai hurrengo kasuetan ere:

- Terrazak guztira okupatutako azalerak 60 metro koadroak gaintzea guztira.
- Jada badauden edo aurreikusita dauden berdeguneei eragitea terrazak edo dauden zuhaitzak kentzea edo moztea behar izatea.
- Instalazioa galtzadan edo ibilgailuen aparkalekuan egin nahi denean, 11. artikuluan aipatzen diren salbuespenekin.
- Galtzada gurutzatu behar bada arretarako, lokaleko irteera-atearen parean zebra-bidea dagoenean eta establezimenduaren parean jartzen denean izan ezik, espaloian kokatu

ezin bada jardueraren ondoan, eta kokatuko den espaloiko eremu horretan terraza kokatzeko baldintzak betetzen badira. Salbuespen hori ez da gune estaliak (beladoreak eta terraza-estalkiak) jartzerakoan aplikatuko.

- Bide-segurtasunari kalte egiten zaionean (ikuspena gutxitzea, gidariak arreata galtzea) edo oinezkoen joan-etorria nabarmen zailtzen denean.
- Inguruko eraikinen eta lokalen sarbidean eta segurtasunean (ebakuaziorako guneak edo suteen aurkako babeserako sistemak) eragina duenean.
- Hiri-altzarien edo -ekipamenduen (bankuak, iturriak, telefono-kabinak, zaborrak biltzeko sistemak, txakurrak aske ibiltzeko guneak, etab.) erabilera galarazten badu, edo modu larrian zailtzen.
- Traba egin, murriztu edo galarazten baditu oinezkoentzako ibilbide irisgarriak, oinezkoen pasabideetarako eta desgaitasuna duten pertsonen plazetarako sarrerak, arrapalen guneak, oinezkoen pasabideak edo galtzadan sartzen direnak, eta hiri-garraio publikoko geltokietan sartzen badira, edota eraikinen lerroaren jarraipena hausten badute, hori ikusmen urriko pertsonen joan-etorrientzat nahasgarri izan baitaiteke (TMA/851/2021 Aginduaren 46. artikulua).
- Ordenantza honetan zehazten diren baldintzak betetzen ez badira.

Terrazak pertsonen segurtasunari eta zirkulazio-baldintzei eragin badiezaieke, baimena eman aurretik, Udaltzaingoak txostena egin beharko du ezartzeko aukeraren eta, egokia bada, ordezkoko aukeren gainean.

IV. KAPITULUA

INSTALAZIOAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

10. artikulua-Instalazioak, ibilgailuen zirkulazioa duten kaleetako espaloietan (espaloï bakunetan).

1. Instalazioa ez da jarduera nagusiak hartzen duen establezimenduaren fatxada baino luzeago izango, non ez duten haren ondokoek baimen idatzia ematen; betiere, ondoko etxebizitza eta lokal mugakideetan, bidegorrietarako erabiltzen diren guneetan, ibilbide irisgarrietan eta oinezkoen pasabideetarako sarbideetan edo hiri-garraioko elementuetan sartzeko bidea bermatu beharko da.
2. Ahal izanez gero, terrazak luzetara jarriko dira eta espaloïaren ertzari jarraituz, harekiko tartea gutxienez 30 zentimetro izanik, betiere 1,80 metro zabaleko pasabidea libre utzita eraikineren fatxadari atxikia (TAM/851/201 Aginduaren 5. artikulua). Nolanahi ere, debeku da oinezkoen pasabideen gainean edota haien beheguneen arrapalen gainean jartzea, baita haien luzapenetan ere, erabilera-norabidean, zabalera izanik gutxienez 1,8 metro, fatxadaren ondoko zerrenda libreteraino.
3. Ezin izango da terrazarik jarri espaloï edo oinezkoentzako guneetan, ez bada bermatzen oinezkoentzako pasabide iraunkor bat, gutxienez 1,80 metroko zabalera libre izango duena, oztoporik gabea eta eraikinen fatxaden lerroan, oinezkoen pasabideekiko eta gainerako ibilbideekiko 1,80 metro zabaleko lotura garbi eta bakunekin.
4. Erabilera publikoko arkupeak edo portxea duten espaloïen kasuan, terraza espaloïaren gunearen gainean kokatuko da, ertzaren ondoan 30 cm-ko tartea libre utzita beti ibilgailuek aparkatzeko, zuhaitzen zerrenda, halakorik badago, eta portxeak, pertsonak ibili ahal izateko. Portxeen barnean ezin izango da inolako elementurik kokatu. Portxeak libre

egongo dira, baita zutabeen arteko tarteak ere, taberna edo terraza erabiltzeko inolako elementurik gabe.

5. Halaber, gune estaliak kokatzea debekatuta egongo da hauen parean: oinezkoen pasabideak, desgaitasuna duten pertsonen aparkatzeko tokiak, larrialdi-irteerak, hiri-garraio publikoko geralekuak, taxien aparkalekuak, beira, kartoi eta zaborren edukiontzia, ibilgailuen irteerak etab. Debekuaren salbuespena izango da bermatzen bada paretaren ondoan zirkulaziorako uzten den 1,80 metroko zerrendaz gain, 3 metroko zabalera zerrenda utz daitekeela, oinezkoek erabiltzeko ertzetik eta hiri-garraio publikoa erabiltzen dutenak igo eta jaistekotik neurtuta.
6. Bidegorriak ezin izango dira inolaz ere zapaldu terrazekin edo beladoreekin, eta galtzada gisa hartuko dira kontuan, distantzien kalkulurako. Beladoreak instalatu nahi badira, kontuan hartuko da etorkizunean egitekoa den bidegorriaren trazadura, eginda dauden proiektuen edo hirigintzako planeamenduko determinazioen arabera.
7. Lokalek, beren jarduera-motagatik (1. artikulua), terrazak jartzeko baimena eskura dezaketenean, baina zerrenda erantsian ageri diren kaleetan egonda terrazarik jartzetik ez dutenean espaloien zabalera dela-eta, eremu publikoa erabiltzeko baimena eskuratu ahal izango dute, baldintza hauek betez gero:
 - a) Terrazak jarri ahal izango dira kokatzen den etxadien arteko kale-tarteko aparkalekuen % 10 okupatzeraino.
 - b) Eremu publikoa okupatzean, terrazek beste erabilera batzuekin bateragarriak izan behar dute, ez galarazteko ez oinezkoen joan-etorriak ez eta beste herritar batzuen jarduerak ere. Bestalde, II. kapituluaren ezarritako determinazioekin bat datozen baldintzen arabera kokatu behar dira eta aldameneko etxebizitzetako herritarrak ez gogaitzeko moduan. Horretarako, terraza baimendu aurretik beharrezkoa izango da Herritarren Segurtasunerako Alorrak eta Hirigintza Alorrak aldeko txostena ematea. Aldez aurretiko proiektua aurkeztu beharko da, elementu guztiak ezin hobeki definituko dituen, dela materialei, dela kolore, diseinu eta tamainei dagokienez.
 - c) Oro har, galtzaden gehigarrietan kokatzen diren terrazek espaloietako terrazen baldintza orokor berberak bete beharko dituzte, baina muga batekin: oinezkoei eta ibilgailuei ez diete inolaz ere eragotzi behar eremu publikoan normal ibiltzea.
 - d) Galtzadaren okupazioa egitura eramaile horizontal baten bidez egingo da, galtzadaren zoladura ondoko espaloien zoladurak duen maila berera igotzeko aukera ematen duena, galtzadetarako sarbidean irtengunerik eta eskailera-mailarik izan gabe. Eraikuntza-arrazoiengatik eta ubidea beti oztoporik gabe egotea bermatzeko, plataforma bermatu ahal izango da 5 cm ertzarekin elkartzeko tokian, gehienez ere 2 cm-ko koska batekin eta gehienez 45° alakatuta egongo den batekin.
 - e) Instalazioa egingo da **metalezko bastidore modularrez** osatutako elementuen bidez, espazio erabilgarriaren formara eta neurrietara egokitu ahal izango baitira; kanpoaldean erabiltzeko egokia den zurezko zoru jarriko da horien gainean, betiere irristagarritasun baldintzak beteta (2. mota, EKT-DB-SUA, 1. zatia) eta suteen aurreko jokaera. Bestelako edozein instalazio tekniko kokatzeko, argi eta berariaz sartuko da proiektuan eta udal-agintaritza eskudunen baimena beharko da. Azken zoladurak % 2ko malda izan beharko du urak espaloi ertzeko erreten edo ubidera bideratzeko.
 - f) Betiere, galtzadaren gehigarrietan terrazak kokatzean establezimenduaren fatxadaren parean dauden aparkatzeko tokiak besterik ez dira hartuko, halakorik baldin badago, eta ez dituzte inola ere okupatuko beste leku batzuetako aparkalekuak. Egituraren neurriak ezin izango dira inola ere izan establezimenduko fatxadaren zabalera eta aparkatzeko eremu okupatuaren sakonera baino handiagoak, betiere aparkatzeko toki okupatuaren tipologia eta ezaugarrietara egokitu beharko baitira (ilaran edo baterian).
 - g) Bateria aparkatzeko eremu batean jartzen diren terrazen kasuan, terrazako elementuen eta ondoko aparkalekuak inguratzen dituen lerroaren artean gutxienez ere metro bat utzi beharko da. Neurri hori proiektio horizontalean hartuko da galtzadaren gainean.

- h) Galtzadaren gainean jarritako terraza-eremurako sarbide bakarra ondoko espaloitik izango da. Instalazioaren ezaugarriek fisikoki galaraziko dute sarrera galtzadako edo aparkatze-eremuko edozein tokitatik. Horretarako, eta terrazaren erabiltzaileek erorketarik izan ez dezaten, babes-elementuak edo haize-babesak jarriko dira inguruz inguru, 4f eta 5f artikuluetan zehaztutako moduan, baina behar bezain sendo, galtzada aldera ez iraultzeko eta erabiltzaileak ibilgailuen zirkulaziotik babesteko.
- i) Instalazioaren diseinuak aukera emango du, betiere, galtzadatik euri-urak husteko sistemak egoki funtzionatzeko, erregistratzeko eta haren mantentze-lanak egiteko, bai eta dagoen bestelako edozein instalazio edo zerbitzu publikotarako ere. Bereziki, terraza kokatuta egoteak ez du trabarik egingo zerbitzu publikoetako oinarritzko elementuen sarbidean edo funtzionamenduan (estolda-zuloak, kutxatilen estalkiak, putzuak eta abar).
- j) Eguzkitakoak edo eguzki-babesak jartzeko eskaera egiten bada, tolesgarriak izango dira, eta 5c artikuluan elementu horietarako ezarritako neurriak eta ezaugarriak beteko dira, salbuespen batekin: instalazioko zoruan ainguratuta eta finko egon behar dute, eta galtzadaren gehigarriaren inguruan jartzen diren mugatzaileek gehienez ere 2,50 metroko garaiera izango dute, galtzadaren mailatik neurtuta, ez dadin inolaz ere galarazi galtzadako trafikoaren zirkulazioa arautzen duten elementuak behar bezala ikustea. Elementu horiek ez dituzte inolaz ere gaindituko terrazak galtzada aldera dituen mugak.
- k) Terraza-mota berezi honetan espresuki debekatuta dago gune estaliak kokatzea (terrazza-estalkiak eta beladoreak).
- l) Instalazio guztia, beste edozein terraza bezala, erraz desmuntatzekoa izango da eta, beraz, ezin izango da zoladuran ainguratu, eta diseinuak (neurriak, pisua, etab.) aukera emango du erraz lekualdatzeko. Erraz desmuntatzeko baldintza hau terrazak izan ditzakeen elementu edo instalazio guztiei ere aplikatuko zaie.
- m) Puntu honetan definitutako aparkaleku-tokiak ezin izango dira erabili, dagoen espaloia terraza normal bat kokatu ahal izateko modukoa bada.
- n) Terraza-mota hauek jartzeko argi frogatu behar da lehenago aipatu diren zehaztasun guztiak betetzen direla. Halaber, proiektu teknikoak bermatuko ditu oinezkoak eta ibilgailuak eremu publikoan segurtasunez ibiltzeko baldintzak, eta azalduko dira terraza halako tokitan jartzeko arazoak.

Hona hemen terraza horiek salbuespenez ezartzeko baimena duten lokalek zein espaloitan jar ditzaketen:

- San Agustin, bakoitiak 1etik 23ra.
- Lekoartea, bikoitiak 2tik 24ra.
- Lekoartea, bakoitiak 1etik 17ra eta ataririk gabeko eremua Artekale eta Errekaldea artean.
- Iruñalde, bikoitiak 2tik 18ra.
- Iruñalde, bakoitiak Gipuzkoako etorbidearen eta Done Eztebe plazarako sarreraren artean eta 9tik 15era.
- Kaleberri, bikoitiak Gipuzkoako etorbidearen eta Done Eztebe plazarako sarreraren artean eta 6tik 16ra.
- Kaleberri, bakoitiak 1etik 5era.
- Gipuzkoako etorbidea, bikoitiak 12tik 22ra.
- Gipuzkoako etorbidea, bakoitiak 15etik 29ra.
- Arantzazu, bikoitiak Kaleberri eta Done Ezteberako sarreraren artean.

- Donamaria, bakoitiak.
- Artekale, bakoitiak.
- Artekale, bakoitiak 1etik 3ra (Eguzki plazaren eremua izan ezik).
- Artekale, bakoitiak 5etik 15era.
- Errekaldea, bakoitiak 10etik 16ra.

Zaindariaren omenezko jaietan, aipatutako tokietan kokatuta dauden establezimenduek, terraza espaloian dutenek, aparkalekuko tokiak okupatu ahal izatea eskatzeko aukera izango dute. Okupazio horrek ez ditu lokalaren fatxada ez eta aparkalekuko tokiak gaindituko, ez luzeran ez eta zabaleran ere. Baimenak soil-soilik balioko du zaindariaren omenezko jaiak irauten duten egunetarako eta ez da bateragarria izango espaloiko terrazarekin.

Handitze honengatik ordaindu beharreko tasa 17. zenbakiko ordenantzako (tokiko jabari publikoko lurzorua, hegalkinaren eta lurpearen aprobetxamendu bereziengatik tasak arautzen dituena) 1.5 epigrafean xedatuta dagoena izango da.

Mahaiak eta aulkiak baino ezin izango dira jarri, tokiak perimetro osoa jarrita eduki beharko du eta alboko espaloitik baino ezin izango da sartu.

11. artikulua-Instalazioak, oinezkoentzako kaleetan (edo zabalera handiko espaloietan, oinezkoentzako tarteen antzekoetan).

1. Lizentziak ematerakoan, kontuan hartuko dira ibilgailuen inoizkako zirkulazio-beharrak eta oinezkoenak, bidearen erabileraren arabera, eta betiere gutxienezko erreferentzia izanda TMA/851/2021 Aginduaren determinazioak.
2. Terraza eta gun e estalien kasuan, beti utziko dira zerrenda libreak eraikinen edo fatxadaren lerro jarraituen ondoan (TMA/851/2021 Aginduaren 46. artikulua) gutxienez 2,50 metro zabal, instalazioetan trabagarri izan daitekeen edozein oztopotik salbu. Toki hori ezin izango da estali fatxadako eguzki-oihalekin, eguzki-babesekin edo eguzkitakoekin, "tunel efektua" sortzea baztertuta.
3. Instalazioaren luzetarako garapenak eta gehieneko zabalerak ez du jarduera nagusia hartuko duen establezimenduaren fatxadaren luzera gaindituko. Terrazaren kasu partikularrean, baimenduta egongo da, aurretik lokal mugakideek baimen idatzia ematen badute, betiere, etxebizitza eta lokal mugakideetan sartzeko bidea bermatzen bada.
4. Jarduera baterako baimendutako terrazak okupatutako azalera osoa, zenbaketa horretatik kenduta beladorearen edo terraza-estalkiaren azalera halakorik badago, ez da izango 60 metro koadro baino handiagoa eta eremu jarraitu batean bilduta egongo da, terrazaren edo terraza barreatuen etenik baimendu gabe.

12. artikulua-Instalazioak, plazetan.

Terrazak eta gun e estaliak plazetan jartzeko eskaerak kasu bakoitzeko ezaugarrien arabera ebatziko dira, muga orokor hauek betetzen dituztela:

- a) Instalazioaren luzetarako garapenak eta gehieneko zabalerak ez du jarduera nagusia hartuko duen establezimenduaren fatxadaren luzera gaindituko. Terrazaren kasu partikularrean, baimenduta egongo da, aurretik lokal mugakideek baimen idatzia ematen badute, betiere, etxebizitza eta lokal mugakideetan sartzeko bidea bermatzen bada.

- b) Bertako etxebizitzaren eta lokalen sarbideak bermatu beharko dira, baita lehenbizikoaren segurtasuna ere, eta, batez ere, bertan jarritako hiri-altzarien erabilera egokia eta irisgarritasuna.
- c) Udal-zerbitzuen (garbiketa, kale-garbigailuak, etab.) eta larrialdietako zerbitzuen (suhiltzaileak, anbulantziak, etab.) funtzionamendua bermatuko da.
- d) Terraza irekien edo estalien kasuan, beti utziko dira zerrenda libreak eraikinen edo fatxadaren lerro jarraituen ondoan (TMA/851/2021 Aginduaren 46. artikulua) gutxienez 2,50 metro zabal, terrazarekin lotuta egon daitekeen edozein oztopotik salbu. Erabilera publikoko portxeak dituzten plazen kasuan, toki horietan, terraza portxearen mugaraino iritsi ahal izango da.
- e) Plazako portxeak ezin izango dira okupatu, halakorik egonez gero. Taberna edo terrazaren erabilera-elementu orotatik libre egon beharko du, baita zutabeen arteko tokiak ere.
- f) Jarduera baterako baimendutako terrazak okupatutako azalera osoa, zenbaketa horretatik kenduta beladorearen edo terraza-estalkiaren azalera halakorik badago, ez da izango 60 metro koadro baino handiagoa eta eremu jarraitu batean bilduta egongo da, terrazaren edo terraza barreiatuen etenik baimendu gabe.

V. KAPITULUA

UDAL-LIZENTZIA IZAPIDETZEA

13. artikulua-Lizentzia eskatzea.

1. Eskatzen duen jardueraren titularrak edo kudeatzen duen pertsonak edo alokatuta duenak eskatu beharko du lizentzia ematea, eta jarduerari lotuta egongo da. Interesdunak Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko du eskaera, alkateari zuzenduta eta artikulua honetan aipatzen diren dokumentuak erantsita. Honako hauek adieraziko dira:
 - a) Eskatzailearen izen-deiturak.
 - b) Eskatzailearen datuak: helbidea, telefonoa eta NANA.
 - c) Jardueraren izena eta kokalekua.
 - d) Jarduerari buruzko datuak (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga, IFK...).
 - e) Terrazaren erabilerarako jardueraren erantzukizun zibileko aseguruaren kopia edo zinpeko aitortpena hura baduela, hain zuzen ere, instalazioak erabiltzaileei eta beste batzuei eragin diezazkiekeen kalteak estaltzeko.
 - f) Alboko etxebizitza eta lokalek emandako baimenaren frogagiria, halakorik behar denean.
 - g) Kokalekuaren planoak, gutxienez 1:200 eskalakoa, argi eta garbi zehaztuz instalazioak okupatzen duen eremua, mahaien eta aulkien banaketa, alboetako babesak eta abar. Halaber, fatxadaren luzera eta eremu libreen zabalera adierazi beharko dira; gainera, hiri-elementuak (zirkulazio-seinaleak, zuhaitzak, bankuak, zutabeak, hiri-altzariak etab.) eta udal-zerbitzuetan izan daitekeen ukipena (urak, saneamendua, gasa, etab.) azalduko dira. Planoak, gainera, barne hartuko ditu lokalaren fatxadak, espaloiak, aparkatzeko tokiak, etab.
 - h) Gune estalien kasuan (beladoreak eta terraza-estalkiak) eta galtzadako gehigarria duten terrazaren kasuan, teknikari eskudun batek idatzitako proiektua. Proiektu horrek,

hain zuzen, barne hartuko du instalazioa egiteko aurrekontua, eskulana eta materialak kontuan hartuta.

2. Udalak ofizios egiaztatuko du eskatzaileak jardueraren eta jarduera abian jartzearen arauzko lizentziak dituela, eta bai erakundearekin dituen betebeharrak ordainduta dituela ere.
3. Behin lizentzia emanda, hura besterik gabe berrituzat joko da, aurreko baimenaren baldintza beretan, toki berean eta mahai eta aulki kopuru bererako, eta instalazioa jartzeagatik ordaindu beharreko tasak eta fidantzak kobratuko dira kontu-zenbakitik. Halaxe egingo da, non eta ez den instalazioa kentzera behartu, zehapen baten ondorioz, tasak ez ordaintzeagatik, fidantzarik ez jartzeagatik edo ordena publikoko edo erabilerako arazoengatik.

Instalazioa kenduz gero edo hartan edozein aldaketa eginez gero, mahai eta aulkien kopurua handitu edo murriztu delako, terraza tokiz aldatu delako, elementu berriak sartu direlako..., aurrena Udalari eman beharko zaio horren berri, eta betiere konfigurazio berria ezartzen hasi baino 20 egun lehenago gutxienez. Baimen berria eman beharko da horretarako.

Jarduera amaitu bada edo lokalaren kudeaketan baja eman bada, modu eraginkorrean jakinarazi beharko zaio Udalari; gainerakoan, tasak kobratuko dira eta berrituzat joko dira.

Lokalaren titulartasuna aldatzen bada edo alokairu edo eskualdatzeagatik kudeatzaile berriak badaude, terrazaren baimen berria izapidetu beharko da, jarduera kudeatuko duen pertsonaren alde.

14. artikulua-Ebazpena.

1. Eskabidea ordenantza honetan zehaztu bezala aurkeztu ondotik, eta txosten teknikoa egin ondoren, legez ezarritako epeetan emango du ebazpena udal-organo eskudunak.
2. Lizentziaren agirian instalazioaren eta elementu osagarrien baldintzak zehaztuko dira, hala nola hartuko duten azalera, mahai eta aulkien kopurua, kontzesioaren indarraldia eta beharrezkotzat jotzen diren gainerako alderdiak. Era berean, terraza edo gune estaliaren ordutegia finkatuko da, eta bai murrizketak ere, halakorik badago.
3. Ez bada bidezkoa baimena ematea edo ez bada egoki jotzen eskatutako lizentzia ematea edo eman beharreko baimenak aldaketaren bat badakar eskatutakoaren gainean, Udalak entzunaldia emango dio eskatzaileari, egokia iruditzen zaiona alega dezan.
4. Eskatzaileak ez badu ordaintzen zerga-ordenantzetan zehaztutako prezio publikoa, eremu publikoa okupatzeagatik, edo ez baditu jartzen ordenantza honetan zehaztutako fidantzak edo ez baditu ordaintzen ordenantza honen arabera ezarritako isunak, lizentzia bertan behera geldituko da automatikoki eta jarduerari lotutako instalazio guztiak berehala kendu beharko dira.

15. artikulua-Lizentziaren baldintzak.

1. Lizentziak beti ematen dira jabetza-eskubiderik gabe eta beste batzuk kaltetu gabe, eta ezin da haietara jo onuradunak bere jardunean izan dezakeen erantzukizun zibila edo penala kendu edo gutxitzeko.
2. Udal-lizentzia beti izango da prekariokoa eta dagokion udal-organoak instalazioa eremu publikotik kentzeko agindu ahal izango du zirkulazioko, urbanizazioko, eremu publikoaren erabilerako edo interes orokorreko (haien artean etxebizitzei, bizilagunei, saltokiei edo bide publikoari sortutako arazoak) beste edozein inguruabarrek hartara eramanez gero. Baimendutako instalazioen titularraren konturakoak izango dira gastuak, eta kalte-ordainetarako eskubiderik ez du izango. Horri begira, beladoreak, terraza-estalkiak, haize-

babesak eta abar erraz desmuntatzekoak izango dira, eta erabiltzailearen eta ondasunen segurtasuna bermatuko da beti.

3. Lizentziaren titularra behartuta dago eremu publikoan instalazioaren edozein elementuren ondorioz egiten diren kalteak konpontzera, baita erabiltzaileei edo beste batzuei egiten zaizkienak konpontzera ere, jarduera nagusiari atxikita dagoen aseguruaren bidez.
4. Betebehar orokorrak eta ordenantza honen aplikazioaren ondoriozkoak ukatu gabe, lizentziaren titular fisikoa edo juridikoa behartuta dago baimendutako okupazioaren xedeko lurzorua, instalazioa bera eta bere elementu osagarriak egoera ezin hobean izatera, garbiketaren, segurtasunaren eta apainduraren aldetik, horretarako behar diren bitartekoak erabilita. Berariaz beladorean eta terraza-estalkien kasuan, elementu horiek eragozten dutenez garbiketa-zerbitzuko makinek eremu publikoa garbitzea, espaloia zabalera guztia, lokalaren fatxadatik terraza estaliraino, terraza ezartzea eskatzen duen pertsonaren erantzukizuna izango da.
5. Terrazen lizentzia ezin da errentan edo azpierrean eman, ezta zuzenean edo zeharka laga ere, erabat edo zati batean. Beladorean edo terraza-estalkien kasuan eskualdaketa egin daiteke lokalaren jarduerarekin batean, gelditzen den denborarako eta betiere jardueraren aldi baterako etetea gertatzen ez bada.
6. Ekitaldiak eta udal-obrak direla-eta, terrazak eta beladoreak aldi baterako kentzeko eskatu ahal izango du Udalak, behar den denborarako eta kalte-ordainik hartzeko eskubiderik gabe.
7. Establezimendu bakoitzeko terraza-lizentzia bakar bat baimenduko da, gehienez ere 60 metro koadroko azalera batekin.
8. Jarduera amaitzeak, dela aldi baterako, dela behin betiko, edo haren kudeatzaileak JEZ zergan baja emateak terraza, terraza estalia edo beladorea ezartzeko eta haren osagarri guztiak kokatzeko lizentzia baliogabetzea ekarriko du berekin. Hain zuzen ere, berehala kendu beharko dira. Terraza berriro jarri ahal izateko, baimen berria eskatu beharko da eta dagozkion tasak eta fidantzak ordaindu beharko dira.

16. artikulua-Tasak, zergak eta fidantzak.

1. Lizentziaren titularrak tasa eta dagozkion gainerako zergak ordainduko dizkio Udalari, zerga-ordenantzetan ezarritako kopuruan eta moduan, eta autolikidazioa eginez kudeatu ahal izango ditu.
2. Eremu publikoan gune estaliak kokatzeagatik obregatikoa Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga barnean sartuko da (EIOZ).
3. Azaleretarako eta tasak igortzeko erreferentzia gisa, mahai batek eta lau aulkik 4 metro koadro hartzen dituztela kalkulatzen da, haiek erabiltzen ari direnean. Toki gehiago hartuz gero, benetan okupatutako azalerari dagokion tasa igorriko da.
4. Ordenantza honetan ezarritako betebeharrak betetzen direla bermatzeko, lizentziaren titularrak 400 euroko fidantza jarri beharko du, eskudirutan, tasa ordaintzearekin batean. Borondatez ordaintzeko epea igarotzen bada fidantza jarri gabe, baimena iraungi egingo da; hala gertatuz gero, interesdunak berehala kendu beharko du instalazioa eta, egokia bada, beste lizentzia bat eskatu beharko du, instalazioa jarri nahi badu. Terrazak kokatzeko emandako lizentzien titularrek beren betebeharrak bete dituztela frogatu bezain laster itzuliko dira jarritako fidantzak.
5. Beladorean kasuan, fidantza 2.000 eurokoa izango da, hain zuzen ere, bermatzeko desmuntaketa eta eremu hura lehen zegoen bezala geldituko dela, jarduera amaitzen bada. Terraza-estalkien kasuan, fidantza 1.500 eurokoa izango da. Kasua hori bada, fidantza eskudirutan edo bankuko abalaren bidez ordaindu ahal izango da.

17. artikulua-Instalazioaren baldintzak.

Lizentzia eskuratu eta gero, titularra harremanetan jarriko da Udaleko zerbitzu teknikoekin, tokian bertan gehienez baimendutako okupazio-azalera muga dezaten. Kontzesio-hartzaileak argi eta zehatz zuinkatuko du lurzoruan okupatuko duen eremua, hura erabiltzen hasi baino lehen.

Eskatzaileak margo urdineko marra jarraiekin egingo ditu azken markak, eta ongi taxutuak eta zuzenak izango dira, 4 zentimetroko lodierarekin. Hura eremu baimendua izango da, eta bertan sartuko dira erabiltzaileek baliatuko dituzten mahai eta aulkiak, loreontziak, haize-babesak, eguzkitakoak, terraza-estalkiak, eta abar, eta ez da inola ere gaindituko.

Beladoreen, terraza-estalkien eta aparkatzeko tokien gaineko terraza berezien kasuan, banaka zuinkatuko dira udal-teknikariekin, jarduerarako eraiki aurretik.

Lurzorua erabilerara esleituta duen pertsona arduratuko da terraza, terraza-estalkia edo beladoreak garbitzeaz, baita erabiltzaileek eta jardueraren jabeak inguruan utz ditzaketen zaborrak biltzeaz ere. Bai terrazak bai toki mugakideek ere garbi eta txukun egon beharko dute. Zeregin hau behin eta berriz ez betetzea baimen-lizentzia eteteko arrazoia izan ahal izango da.

Horretarako, beti bete beharko ditu Udaltzaingoak edo Garbiketa Zerbitzuak emandako jarraibideak, eremu hura txukun-txukun mantentzeko, eta jarraibide horiek unean bertan bete beharko ditu.

Espazioa okupatzeagatik ezin da lokalerako sarbidea nahiz ondoko lokaletarako edo atarietarako oztopatu, ezta espaloian barnako joan-etorria trabatu ere edo jarduerak edo eraikinak ebakutzeko elementuei eragin ere.

Terrazaren, terraza-estalkiaren edo beladorearen esleipenduna izango da arduraduna bezeroek terraza heda ez dezaten muga baimenduetatik kanpo.

Lokalen jabeen ardura izango da eragozpenak saihestea, terraza, terraza-estalki edo beladoreetako bezeroek ozen hitz egiteagatik edo bestelako arrazoiengatik sor ditzaketenak, eta bai baimendutako tokietatik eta ordutegietatik kanpo EZ kontsumitzea ere.

Terrazek ezin izango dituzte inoiz eremu publikoa edo ibilgailuek aparkatzeko eremuak hartu, zaindariaren omenezko jaietan edo behar bezala justifikatutako eta ohiz kanpoko ekitaldi berezietan berariaz emandako baimen zehatzetan edo ordenantza honetan ezarritako salbuespenetan izan ezik, 11. artikuluko 9. puntuan jasotako salbuespenak izan ezik.

Lokaletako terrazak portxeen eremuetan koka daitezkeenean, portxe horiek erabat libre utzi beharko dira, nahiz eta eguraldia txarra izan.

18. artikulua. Baimena azkentzea.

Lizentzia kasu hauetan azkenduko da:

- Titularrak uko egin diolako eremu publikoa okupatzeko lizentziari.
- Udalak ezeztatu duelako:
 - a) Interes publikoko arrazoiengatik, eta kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik gabe.
 - b) Lizentziaren baldintzak eta/edo ordenantza honetan edo aplikatzekoa den beste edozein arauditan xedatuta dauden arauak ez betetzeagatik.
 - c) Eremu publikoa okupatzeko tasa borondatezko aldian ez ordaintzeagatik.

d) Fidantza ez delako jarri.

VI. KAPITULUA

EPEAK ETA ORDUTEGIAK

19. artikulua-Denboraldia.

TERRAZEN DENBORALDIA. Urteko iraupena: urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte. Urtero automatikoki berrituko da, arau-hausteren bat edo zehapenen bat egon bada edo jardueraren edo instalazioaren titularrak edo kudeatzaileak aldaketaren bat egin badu izan ezik. Kasu horretan, Udalari baimen berria eskatu beharko zaio.

GUNE ESTALIEN DENBORALDIA: urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte. Kasu hauetan, lehen baimenaren indarraldia 2 URTEKOA izango da eta urtero berrituko da, arau-hausteren bat edo zehapenen bat egon bada edo jardueraren edo instalazioaren titularrak edo kudeatzaileak aldaketaren bat egin badu izan ezik. Kasu horretan, Udalari baimen berria eskatu beharko zaio.

TERRAZETARAKO EGUZKITAKO ETA EGUZKI-BABESEN DENBORALDIA: maiatzaren 1etik urriaren 31 arte.

BEROGAILUETARAKO DENBORALDIA: azaroaren 1etik apirilaren 30a arte.

20. artikulua-Ordutegia.

1. Zein den ere jarduera nagusirako baimendu den ordutegia, terrazak, terraza-estalkiak edo beladoreak ordutegi honen barnean baino ez dira erabiliko:
 - INSTALAZIOAK EREMU PUBLIKOAN KOKATZEKO ORDUTEGIA:
Lokala irekitzen denetik aurrera, baina inoiz ez goizeko 08:00ak baino lehen.
 - INSTALAZIOAK EREMU PUBLIKOTIK KENTZEKO ORDUTEGIA:
Igandetik ostegunera: 23:00ak arte.
Ostiral, larunbat eta jaiegunen bezperetan: 01:00ak arte.
2. Udal-organo eskudunak, salbuespenez, ordutegi malguagoa baimendu ahal izango du instalazioa kentzeko, udalerrri osorako edo eremu jakin baterako, zaindariaren omenezko jaietan eta garrantzi bereziko beste egun batzuetan.
3. Edozein arrazoi dela-eta, bizilagunei eragozpenak sortzen zaizkiela egiaztatzen den tokietan, 21:00ak arte murriztu ahal izango da ordutegia igandetik ostegunera, eta 22:00ak arte ostiral, larunbat eta jaiegunen bezperetan.
4. Debekatuta dago bizilagunen atsedenaldira galaraztea zarata, oihu, kantu edo bestelako eragozpenekin, 22:00etatik aurrera batez ere.
5. Nolanahi ere, debekatuta egongo da megafonia/musika/zuzeneko musika/karaokea/bideo-ekipoak edo multimedialakoak jartzea lokalaren kanpoaldean, edo barnean, ateak irekita badaude.

21. artikulua-Instalazioa kentzea.

1. Aurreko artikuluan ezarritako ordutegia bukatuta, instalazioaren titularrak terrazetako elementu guztiak kenduko ditu kanpotik: mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak eta abar. Egunero bilduko dira terrazari dagokion lokalaren barnean edo interesdunak horretarako prestatuta duen lokal batean.
2. Altzariak ezin izango dira inolaz ere eremu publikoan utzi instalazioaren ordutegia bukatu eta 30 minutu igaro ondoren. Begi-bistan gordetzea baimenduko da baldin eta lokalaren lurretan gordetzen badira (adibidez, ateak irekitzeko egiten diren atzeraemanguneetan edo antzekoetan).
3. Behin material baimendua bildutakoan, lizentziaren titularraren ardura izango da eremu okupatua behar bezain garbi uztea.
4. Beladoreak eta terraza-estalkiak, bereziak direla aintzat hartuta, ez dira kenduko baimena bukatu arte, edo jarduera uzten denean, nahiz eta itxita egon beharko duten erabilera desegokiak edo kontrolik gabeak galarazteko.
5. Terraza-estalkien kasuan, mahaiak eta aulkiak barnean gordeko dira, desmuntatuta eta ordenatuta, eta itxita egon beharko dute erabilera desegokiak edo kontrolik gabeak galarazteko.
6. Bai elementuak desmuntatu, lekualdatu eta gordetzeko lanak eta bai inguru hori garbitzekoak ere isilik egingo dira, era zainduan, materialak lurlean herrestan eraman gabe eta ahalik eta zarata gutxiena eraginda.

22. artikulua-Instalazioaren titularraren betebeharrak.

1. Betebehar orokorrei eta ordenantza honen aplikazioaren ondoriozkoei kalterik egin gabe, lizentziaren titularra behartuta dago baimentzen den okupazioaren xedeko zorua, instalazioa bera eta bere elementu osagarriak egoera ezin hobean edukitzera, garbitasunaren, segurtasunaren eta apainduraren aldetik, horretarako behar diren bitartekoak erabilita, hala nola paperontziak, hautsontziak etab.
2. Debekatuta dago kanpoan barrak jartzea, bozgorailuak, ikus-entzunezko sistemak eta/edo musika- edo multimedia-makinak edozein bertsiotan. Terrazaren erabiltzaileek halako tresnak erabiltzen badituzte, titularraren ardura eta erantzukizuna izango da itzaltzeko eta kentzeko agintzea.
3. Jardueraren titularrak etengabe zainduko du ez daitezela kokalekuaren baldintzak eta elementu baimenduen mugak aldatu, lizentzian ageri diren bezalaxe.
4. Lizentziaren titularrak une oro izango du jarduerarako lizentzia prest, agintaritzako agenteen eskura, bertan adieraziko baita zenbat mahai, beladore eta/edo eguzkitako dauden baimenduta, baita zehazki non kokatu ere.
5. Instalazioaren titularraren ardura eta erantzukizuna izango da gainerako bizilagunen lasaitasunerako eskubidea begiratzea; hortaz, ez du eskandalu, borroka eta/edo, oro har, zaratarik onartuko instalazioan, batez ere 22:00etatik aurrera.
6. Edozein arrazoi dela-eta terraza edo beladore bat behin betiko kentzen bada, titularrak behar bezain ongi utzi beharko du okupatuta duen lurzorua eta eremu publikoan ezarrita dituen elementu egonkor guztiak handik eraman beharko ditu astebeteko epean, baimendutako denboraldia bukatzen denetik edo instalazioa erretiratzeko agindua ematen denetik aurrera.

VII. KAPITULUA

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

23. artikulua-Arau-hausteen sailkapena.

Hona hemen ordenantza honetako arauen kontrako arau-hausteen sailkapena: arinak, larriak eta oso larriak.

1. ARAU-HAUSTE ARINAK:

- a) Terraza edo beladorea jartzea aginduzko udal-lizentziarik gabe, legeztatu ahal denean.
- b) Baimendu baino azalera handiagoa okupatzea, % 30etik behera.
- c) Ordenantzan xedatutako ordutegia urratzea.
- d) Lizentzian zehaztutako gune estaliak, terraza eta/edo eguzkitakoak kokatzeko baldintzak ez betetzea.
- e) Bizilagunei eragozpenak eragitea, zaratarengatik, kearengatik, usainarengatik edo saltoki, lokal edo atarietara sartzea oztopatzeagatik.
- f) Terrazak edo gune estaliek hartzen duten eremua behar bezain garbi ez edukitzea.
- g) Okupatutako eremua behar bezain garbi ez uztea, mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak etab. eremu publikotik kendutakoan.
- h) Bide edo eremu publikoan kokatutako elementuei kalteak eragitea, besteak beste, hiri-altzariei, zuhaitzei, lorezaintzako elementuei, apaingarriei eta/edo gainerako elementu publikoei.
- i) Lizentzian baimendutako tokia ez den beste bat okupatzea.
- j) Lizentzian jasotakoak baino mahai eta aulki edo osagai gehiago kokatzea.
- k) Mahaiak eta aulkiak tolestuta eta pilatuta izatea establezimendutik kanpo.
- l) Ordenantza honetan ezarritako ordutegia ez betetzea.
- m) Ordenantza honetan ezarritako epean eremu publikotik ez kentzea mahaiak, aulkiak, berogailuak, eguzkitakoak, eguzki-babesak, loreontziak, haize-babesak, altzari osagarriak eta abar, terrazak eta gune estaliak jartzeko baimena bukatzen denean.
- n) Ordenantza honetan eta baimenean jasotako edozein betebeharrak eta debeku, berariaz arau-hauste larriaren kalifikazioa ez duena, ez bete eta haustea.

2. ARAU-HAUSTE LARRIAK:

- a) Terraza edo gune estali bat jartzea Udalaren aginduzko lizentzia izan gabe eta legeztatzeke aukerarik izan gabe, ez direlako betetzen halako instalazioetarako baimenak eskuratzeko baldintzak.
- b) Arau-hauste arinak bitan egitea.
- c) Baimendu baino azalera handiagoa okupatzea, % 30etik gora.
- d) Lizentzian zehaztutako gune estaliak, terrazak eta/edo eguzkitakoak kokatzeko baldintzak ez betetzea, horrek kalte larria sortzen dionean interes publikoari edo beste batzuei.

- e) Behin eta berriz aritzea bizilagunei gogaitzen.
- f) Behin eta berriz ez betetzea ordenantza honetan ezarritako ordutegia.
- g) Musika-aparatuak edo bozgorailuak jartzea.

3. OSO ARAU-HAUSTE LARRIAK:

Berrerortzea, urte baten barnean hiru arau-hauste larri edo gehiago egiteagatik, administrazio-bidean ebazpen sendoak hala deklaratu duenean.

24. artikulua-Zehapenak.

Ordenantza honetan ezarritako aginduak ez betetzeagatik egiten da arau-haustea eta, ondorioz, zehapen-espeditentia abiarazi ondotik, hurrengo zehapenak ezarriko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako prozedurari jarraituz. Zehapen horiek ez dira inoiz arau-haustek arau-hausleari ekarri dion etekin ekonomikoa baino txikiagoak izango.

Arau-hauste arinak: 100 eta 400 euro arteko isuna.

Arau-hauste larriak: 401 eta 1.000 euro arteko isuna.

Oso arau-hauste larriak: emandako lizentzia baliogabetzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 85. artikuluan xedatuta dagoena aplikatuko da, zehapen-prozedurak amaitzeari dagokionez, arau-hausleak erantzukizuna aitortzeagatik eta zehapena borondatez ordaintzeagatik. Isunaren zenbatekoa % 50 murriztuko da, baldin eta zehapena jarritako pertsonak idatziz adierazten badu ados dagoela zehapenarekin eta uko egiten badio espresuki edozein ekintza edo errekurtso aurkeztuari administrazio-bidean zehapenaren aurka.

25. artikulua-Udal-lizentziarik gabeko instalazioak. Legezketasuna berrezartzea.

Zehapen-prozeduraren ondoriozko erantzukizun administratiboez gainera, arau-hausleari eskatu ahal izango zaio bestelakotutako egoera lehengoratzeko, eta bai ordaina ordaintzeko ere eragindako kalte-galerengatik.

Terraza bat lizentziarik gabe edo lizentziaren baldintzak bete gabe jarri dela ikusten denean, titularrari edo establezimenduan arduradun dagoenari eskatuko zaio berehala kendu edo egokitu dezala terraza hori.

Ez badu betetzen eskatutakoa, Udaleko ikuskatze-zerbitzuak laguntza eskatuko du terraza berehala kentzeko.

Terraza kentzeak sortutako gastuak arau-hauslearen kontura likidatuko dira.

Lizentziak babesten duen aldia bukatu ondoren terrazak bertan jarraitzea udal-baimenik ez izatearen parekoa izango da.

26. artikulua-Betearazte subsidiarioa.

Instalazioaren erantzuleak ez badio kasurik egiten eremu publikoan ezarritako elementuak kentzeko udal-aginduari, ordenantza honetan ezarritako kasuetan, Udalak kendu egingo ditu eta bere biltegi-talara eraman. Bertatik atera ahal izango ditu jabeak eta erreklamatzeko duen jabe berriak, behar diren tasak eta zehapenak ordaindu ondoren edo horretarako jarri den fidantza konfiskatu eta gero.

Gauza berbera aplikatuko da instalazioa bide publikoan abandonatuta uzten den kasuetan.

Materiala biltegietan edukitzeko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da. Hartara, epe hori igaro eta gero, Udalak komeni zaion moduan erabili ahal izango du material hori.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena

Nafarroako Aldizkari Ofizialean ordenantzaren testu bategina kaleratzeak berekin ekarriko du terrazetarako lehenago emandako lizentzien indarraldia galtzea, eta, horrenbestez, jardueraren titularrek berriro eskatu beharko dute lizentzia. Edonola ere, indarrean egoten jarraituko dute aurrekoaren babesean beladoreei eta terraza-estalkiei emandako lizentziek.

Bigarrena

Aurreko ordenantzaren babesean fatxadari itsatsita baimendutako beladoreak baimenduta geldituko dira, baldin eta han ezarritako betebeharrak betetzen badituzte.

Hirugarrena

Ordenantzaren testu bategina Nafarroako Aldizkari Ofizialean kaleratu eta gero, 90 egun naturaleko epea hasiko da, non ez den indarrean egongo ordenantzaren 24. artikulua. Hala, epe horretan, arau-hausleek dagokien ohartarazpena jasoko dute. Egindako arau-haustez ohartaraziko dira eta, hala, modu praktikokoan jakinaraziko zaie arauaren aldaketa berriaren edukia.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra

Testu bategina Nafarroako Aldizkari Ofizialean kaleratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu eraginak ordenantza honek, 24. artikulua izan ezik, horrek kaleratu eta 90 egun natural igarotzen direnean hartuko baitu indarra.